

KONTROL MOZIOA

DONOSTIARAKO TOPO PROIEKTUA DELA ETA

Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko uztailaren 20an, Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2015eko maiatzaren 29an Eusko Jaurlaritzak erakusketa publikoan jarri zuen Donostialdeako topo proiektu berria, zeinak pasante, aho eta geltoki berriak edo berreraikitzeak jasotzen dituen. Burdinbide-azpiegitura honek eragin nabaria izango du hiriko garraio publikoan eta etorkizunean ere, udalerrri eta eskualdean instituzioen artean garatuko dugun mugikortasun eredu.

Erakusketa publikoa, gardentasun irizpideak alde batera utzita, udara-arogan eta komunikazio-lanik gabe burutu da. Horrek ez du ekidin udalerriko erakunde, elkarte eta bizilagunek ehunka eta ehunka alegazio sartzeari proiektuari; besteak beste, desadostasunaren, obren eraginen eta gizarte eztabaida baten beharraren inguruan.

2015eko uztailaren 20an, Udal Gobernuako ordezkariak proiektuaren inguruan interpelatu ondoren, erantzun dute, batetik, hala eskatu arren, erabaki zutela ez deitzea Eusko Treneko batzordea Udal Gobernuak alegazioak egin arte. Eta, bestetik, Udal Gobernuako ordezkariak aitortu dute ez dituztela sakon ezagutzen azpiegitura honek ekar ditzakeen ondorioak aztertzen dituzten txosten teknikoak.

Horiek horrela, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA:

- Donostiako Udalbatzak PSOE eta PNVren Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio sakon azter dezala batetik Donostialdeako topo proiektu berriak izan dezakeen eragina Dbus-eko zerbitzuetan eta aurkez dezala azterketa Sozietatearen Administrazio Kontseiluan.
- Donostiako Udalbatzak PSOE eta PNVren Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio gardentasunez joko dezala Donostialdeako topo proiektuaren inguruan, eta behar bezala informatu ditzala talde politiko eta bizilagunak proiektu honen inguruan burutzen dituen ezein kudeaketaren inguruan.
- Donostiako Udalbatzak PSOE eta PNVren Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio, EuskoTrenbideSareak eta Eusko Jaurlaritzaren aurrean, batetik, aintzat har ditzala donostiarrek

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

aurkeztutako alegazioen edukia eta, bestetik, defenda dezala azpiegitura honen inguruan Donostian beharrezkoa den gizarte eztabaida instituzio, elkarte eta bizilagunen artean.

Donostian, 2015eko uztailaren 24an.

Axier Jaka Goikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia